


# “Sagardoan ardoan bezala kalitateak bereizi beharko liriateke”

«GIPUZKOAKO SAGARRONDOEN IZURRI ETA GAIXOTASUNAK» IZENBURUPEAN LIBURU BAT ARGITARATU ZUEN GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK 1986. URTEAN. BEREHALA, AGORTU ZEN ORDEA; URTEAK IRAGAN DIRA ORDUTIK ETA GAIXOTASUN BATZUK GAINDITZEKO SENDABIDEAK ERE ALDATU EGIN DIRA. HORREGATIK, LIBURU HARTAN ARGITARATUTAKO GUZTIA GAURKOTU ETA 2003. URTEKO URRIAN WWW.GIPUZKOA.NET HELBIDEAN, ARGITARATU DUTE. IGNACIO JAVIER LARRAÑAGA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO FRUITU TEKNIKARIA IZAN ZEN LIBURU HONEN BULTZATZAILLETAKO BAT, DIONI BERRA ETA JAVIER FERNANDEZEKIN BATERA ETA BERAREKIN HIZKETAN ARITU GARA.



-1986. urtean argitaratu zen liburua eta orain berriz, web gunean sagarrondoan gaixotasun eta izurriteak biltzen dituzue.

-Bai berez web guneak liburua du oinarri eta aurretik jarri ez genituen gaixotasunak eta sendabideak ere biltzen ditugu. Urte guz-

ti hauetan gauzak asko aldatu dira eta horrez gain, liburua ere agortu egin zen eta horregatik Interneten jartzea erabaki genuen. Informazioa gaurkotu egin dugu eta kanpoan gelditu ziren beste gaixotasun batzuk ere gehitu ditugu. Helburua interesa duten baserriar guztiengana iristea da eta sagarrondoan gaixotasun eta izurriteei buruzko informazio guztia eskuragarri jartzea da, hala, baserriarrek produktu hobea lortzeko posibilitatea eskaini nahi dugu eta sortu daitezkeen gaitzei aurre egiteko modua eskaini.

-Eta zeintzuk dira Gipuzkoako sagarrondoek pairatzen dituzten gaixotasun hedatuena?

-Gure lurrak nahiko hezeak direnez, fruta-arboleak ondoako izan ziren. Bes-



tzen dituzte batez ere. Erdoia eta txankroa ere izaten dute batzuetan. Bestalde, lur ustelduran ordea, phytophthora ondooa da batez ere hedatuena eta orain kontrolatuagoa dagoen arren, XX. mende hasieran gaztaina ondo honen ondorioz galdu zen. Bes-



Ignacio Javier Larrañaga.

talde, «amilaria mellea» perretxikoa ere enborraren alboan sortzen da eta zuhaitzaren zainak usteldu egiten ditu. Garai batean Gernikako haritzak ere gaixotasun hau izan zuten. Azkenik, 1995. urtean, Gipuzkoara su-gorrina bakterioa hedatu zen eta udaberrian beroa egiten duenean, gaixotasuna heldu egiten da. Intsektuen artean, sagarraren arra eta zorriak dira ezagunenak.

-Gaixotasun guzti hauen aurrean, zer egiten dute nekazariek? Ba al dakite nola senda ditzaketen sagar hauek?

-Toki guztietan bezala, denetatik dago. Bada, zaletasunez edo atsegin duelako, sagarrondoek denbora gehiago eskaintzen dizkieten pertsonak. Hala ere, egoera ez da garai batean zen bezalako, egun gaixotasun bat baldin badago, gaitz hori konkretuki tratatzen da eta produktua ere ez dira hain oldarkorrak, beti ere, toxizitatea zaintzen baita. Tratamenduak gizakiengan izan dezakeen eragina kontutan izateaz gain, ibaietan, erleengan nahiz beste

hainbat alorretan izan dezakeen eragina ere kontutan hartzen da. Horregatik ahalik eta produktu suabeenak, gomendatzen ditugu eragina ez dadin hain erasotzaile izan.

-Baserriarrek gaitz edo izurrite baten aurrean, Foru Aldundire gomendapen bila joaten al dira?

-Gipuzkoan elkarte ugari daude eta askotan elkarte hauek deitzen digute. Beraiek ere ordea, badituzte haien teknikoak eta haiek ere laguntzeko prest izaten dira. Hala ere, egun, Interneten behar duten informazio guztia dute gaitz eta izurrite guztiak aurre egiteko.

-Gaitzak tratatzearen garrantziak kontzientziatuak al daude baserriarrek?

-Zaletasun handia dutenak normalean saiatsen dira eta badira mimo handiarekin sagarrak tratatzen dituztenak. Hala ere, sagarra mimo handiarekin tratatzen baduzu, ordu asko emango dituzu sagarrondo azpian, sagarra zaintzen, eta noski, lan ordu guzti horiek ez dira sagarraren salneurriarekin orekatzen. Horretarako sagardo kalitateak egon beharko liriateke, lehengaiaren kalitatearen arabera, ardoarekin egiten den bezala. Askotan sagarraren salneurria hain merkea izanik, mimo batzuk egiten dira, baina ez zaio behar haina atzentzio eta denbora eskaintzen.

## Sagar autoktonoen sustapena

Gipuzkoako Foru Aldundiak sagar autoktonoen landaketa bultzatzeko eta sustatzeko ahalegina egiten du. Izan ere, uste baino sagar autoktono gehiago baitugu. Urtero gainera, sagar mota batzuk landatu eta saltzen ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak bere lurretan dituen mintegien birtatez eta aurrean argitaratu duen berriraperean 12-15 sagar motaren landaketa bultzatu nahi dute. Garrazten artean alpagarrienak, gezamina, mikatza eta mozoloa dira eta gazi garratzak berriz, errezila, goikoe-txea, manttoni, merabi, moko, txalaka, urdin eta urtebi txikia dira sagar mota autoktonoak. Gazien artean, urtebi handia da aurrean indartu nahi izan dena. Aukeraketa honetan ere sagardo egileekin hitz egin behar da lehenengo, izan ere, beraiek erabakitzen baitute zein sagar mota behar duten ostean sagardo egiteko. Hala ere, oraindik sagar euskalduna, sagardo egiteko erabiltzen denaren %12 besterik ez da; honen arrazoiak ugariak dira baina Ignacio Javierren aburuz, «Euskal Herria oso lurralde industrializatua da eta hemengo baserriek oso hektarea gutxi dituzte». Horrez gain, askotan lur aldapatsuak izaten dira eta ezin izaten dira makinak sartu, beraz lurra lantzea eta fruta-arbolak zaintzea zailagoa izaten da. Hala ere, gure sagarren produktioa hazteko ahaleginean jarraitzen du Foru Aldundiak eta ekimen ebordiarren bidez...

TOLARE SAGARDOTEGIA

ASTASU


**SARASOLA**

Tel. 943 690 283 / 943 652 422  
Móvil 639 778 420

LARUNBATA ETA IGANDE EGUERDITAN IREKITA

**URKIOLA SAGARDOTEGIA**

Igara Bidea, 37 • 20018 DONOSTIA  
Tel/Fax: 943 210 168 • Móvil: 615 786 494



- Tradicionales menús de sidrería, sidra al txotx
  - Variados menús del día
  - Abierto de lunes a domingo
- i Tu sidrería en Donosti !**
- Zure sagardotegia Donostian !!**

P.º de Zubiaurre, 72 - Donostia - Tel. 943 292 074